

ANGELUKO IKASLEAK

OSOGUNEKO ERAKASKERA

-1996-97- IKASURTEA-

ZAZPIGARREN ERAKASPENA

ELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS-GAIA-

1. Thomasek, bezperan, proa ongi aztiatu zuena?
2. Belea zer ari zen eta nun? ?
3. Gantxume zeri ohartu zen?

(II)

Maria Zaharra

Thomasek erran bezala, elhur egin zuen gau hartan guzian; eta goizalderat amak athe-leihoak ideki zituelarik, bazterrak oro xuri xuria agertu ziren, ikus-abala urrun. Halako ixiltasun handi bat eroria bezala zen kanpo heien guzien gainera. Etxe-barnean, hala hala, harrabots guti sumatuko zen; barruki-heiatik-ethorri marruma ilhun zonbeit doi-doi.

Etxearen aldeko gerezi ondoaren kaskoan, eliza-dorreko oilar handiaren pare sinkaturik, bere bepazter<sup>1</sup> horien artetik ezker eta eskum<sup>2</sup> orot<sup>3</sup> beira, bele zahar<sup>4</sup> bat karrankaz ari zen: kroa!-kroa!-kroa!... Bere goizeko othoizta erranik; jauzian atheratzen Gantxume ttikia, eta, pisu pisua, orduan, kolore ederrenez dirdiretan iguzkiak aphaindua, airatu zen bele-kantaria...

"Zure bardako belea, ama!... Bainan, hegal ttikia handitu zaio gau huntan: Behozurama, beha!"

Han, uhartzearen<sup>5</sup> zola-zolan, beren bizkar handiak zabalduz, xuri xuria ageri ziren mendiak; Larrunek pesta-berrietako aldare eder bat iduri zuen.

Landa, sorho, sorhopil,<sup>6</sup> baratze; oro, xuri xuria hek ere, mila suz zilarrezatuak ziren, etxearen ondoan; eta irin pullitaren gainean, xori-paparo-gorriak saltoka leihoaren ondoraino heldu ziren, beren aztapar ttikiez elhurra zirrimarratuz dena. Frantxa eta Xaneta ogi-porroxa arthikitzen ari zitzaizkoten.

Elhur-legun batek estalirik, bertze batzu eginak ziren herriko etxek, Senpere guzia sorgin maite batek gau batez mudatu balu bezala, beltz-beltza athe-leioak, xuri xuria gainerateko guziak.

Errota-zaina urrun-urrun ikusirik, harritu zen Gantxume eta oihuka hasi berehala, baizik eta lehenagoko errota-zain xuriaren orde, errota-zain berri bat heldu zitzaioela, beltz beltza elhur xuriaren gainean.

Oihanean, elhurrez gainetik oro orratuak,<sup>7</sup> beltz beltza hek ere, ikus zitezken arbola-ondo zaharrak, beso eta ile animal<sup>8</sup> batzueki-lako mamuak iduri.

Tartean, iguzkiak gordatzerat egiten zuen, zeru ilhun, hauts-kolore-baten azpian; antzara-basa batzu sistakoan jalitzen ziren hedoi<sup>9</sup>en artetik, eta hedoi hetan herriz suntsitzen, halako karrasi erdoildu batekin.

Athe aintzinean, elhur-ukaldika ari ziren Ganix eta Gantxume...

...

\*. L'intransitif ici sert à traduire ou indéfini (Ikusi = voir est un verbe transitif qui ne peut se conjuguer qu'avec avoir et la conj. périphrastique) Ikusten dut = je le vois.

III ADITZ IKASKUNTZA.

- 31- ari zitzaizkoten<sup>32</sup> - mudatu balu  
 33- heldu zitzaioela<sup>34</sup> - ikus zitezken.

31. IZAN. Régime Indirect. Indic. Imparfait.

Hek ziren = ils étaient.

- Hek (eus) zitzaizkitan (à moi) = ils m'étaient  
 zitzaizkizun (à vous) = ils vous étaient  
 zitzaizkion (à lui) = ils lui étaient  
 zitzaizkigun ((à nous)) = ils nous étaient  
 zitzaizkizuen (à vous) = ils vous étaient  
 (1) = zitzaizkien (à eux) = ils leur étaient

32. UKAN. Suppositif. Eventuel réformé.

Eventualité prochaine (à présent)

Objet singulier	Objet pluriel
Nik banu = Si j'e l'avais	H. banitu = si je les avais
Hik banu = Si tu l'avais	H. banitu = {
Zuk bazinu = Si vs l'aviez	Z. bazinitu = {
Harek balu = Si il l'avait	H. balitu = } etc.
Guk baginu = Si ns l'avions	G. baginitu = {
Zuek bazinitu = Si vs l'aviez	Z. bazinituzte = }
Heiek balute = Si ils l'avaient	H. balituzte = si ils les avaient

Conjug. périph. Ikusten banu = si je le voyais.

IZAN. Régime Indirect. Indic. Imparfait

Hura zen = il était.

- Hura (lui) zitzaitan (à moi) = il m'était  
 zitzaizun (à vous) = il vous était  
 zitzaion (à lui) = il lui était  
 zitzaigun (à nous) = il nous était  
 zitzaizuen (à vous) = il vous était  
 (2) = zitzaioela (à eux) = il leur était

(1) zitzaizkoten • (2) zitzaioela